

Funtzesko sozietateak: Gure helburua janari lokalak erabiltzea eta euskal produktuak era moderno batean bermatzea denez, Euskal Herrian zehar dauden hornitzaileekin jarriko ginateke kontaktuan. Adibide batzuk jartzeko, Euskolabel (Euskal Autonomia Erkidegoan ekoitizi, eraldatu eta edo prestatu diren nekazaritza eta abeltzaintza produktuak), Basatxerri, Lacturale (Esnea ekoizten duen enpresa nafartarra), Lumagorri, Idiazabal (Hego Euskal Herrian egiten den ardi gazta famatua) eta horrelako enpresa euskaldunekin arituko ginateke. Euskal chef famatuei kolaborazioak eskainiko genizkioke. Argiñano edo Berasategi bezalakoak. Bi hauek oso famatuak dira "Masterchef" bezalako programa askotan egon direlako eta beraien jatetxeak mundu osoan famatuak dira. Horrez gain, Eusko jaurlaritzaren kolaborazioa ere eska genezake, euskal sukaldaritzaren sustapena eta zabalkuntza bermatzeko.

